

ZENBAT BURU
Idoia Esnaola

ERREPORTAIA
Elgoibartarrak
liburugintzan

UDALETXETIK
Azaroaren 29ko
plenoa


BERBETAN
Aitor Zabaleta
Ecuadorretik
bueltan

KIROLA
Nazioarteko
Xake
Txapelketa

BARREN

1996ko abenduaren 5a
IV. urtea - 175. zkia

E L G O I B A R K O A S T E K A R I A



Jasone Osoro:
“Sariek zure lana
errekonoitzeko balio
dute”

“Aurrera begiratzen ez duena atzean dago”



Lorazaintza eta Nekazal Zerbitzuak

- Loratoki eta fruitu-arbolategien diseinua, mantenua eta errealizazioa.
- Desbrozeak
- Fruitu-zuhaitz nahiz apainketarako zuhaitzen inausketak (podak).
- Gaixotasun eta izurriteen diagnosia eta tratamendua.



 989-70 77 19 Jose Maria Alzibar,1-1 · Tel. 60 33 63 · 20830

BITXIDENDA

San Frantzisko, 26 - Te. 74 25 35 - ELGOIBAR



*Gabon opariak
erosterakoan aukera
handia aurkituko
duzu, bai eta azken
diseinuko bitxiak ere.*

*Bide batez,
URREZKO ERLOJU
HAUEN JABE
EGIN ZAITEZKE.
1.000 pta.ko
erosketarengatik txartel
bat emango dizugu
urtarrilaren 5ean dendan
egingo den zozketarako.*



Lorazaintza eta Nekazal Zerbitzuak

- Loratoki eta fruitu-arbolategien diseinua, mantenua eta errealizazioa.
- Desbrozeak
- Fruitu-zuhaitz nahiz apainketarako zuhaitzen inausketak (podak).
- Gaixotasun eta izurriteen diagnosia eta tratamendua.



 989-70 77 19 Jose Maria Altzibar,1-1 · Tel. 60 33 63 · 20830



IDOIA ESNAOLA

J oan den hileko egunkarietan irakurri ahal izan dugu, Estatu espainoleko parlamentuan egindako botazioaren arabera NATOren barnean sakonki, guztiz sartuak, egongo garela. Ez al geunden jadanik barruan? Batek baino gehiagok egingo zuen galdera hau.

Atzerantz begiratzen badugu, zuetariko askok gogoan izango du orain dela hamabi urte antolatu zen erreferendum-a: OTAN BAI, OTAN EZ. Euskal Autonomi Elkartearen ezezkoak irabazi zuen (%65ak EZ eta %31ak BAI) Kanariar irletan eta Nafarroan bezala, baina Estatu espainolean botoen %53a BAIEZKOA izan zen eta %40a EZEZKOA. Beraz, 1986tik NATOren barruan gaude. Ipar Atlantiar Tratatuko Erakundearen barruan egonik, hiru baldintza beteko ziren propaganda egin zuten:

1- Erakundearen egitura militar sakonenean ez zela parte hartuko.

Nola da posible politika hori jarraitu duen herrialde bateko ministro ohia hamabi urteren ondoren erakundeko idazkari izatera heltzea?

2- Debekatuta gelditzen zen arma nuklearren sarrera eta pilaketa.

Ziurtatu dezakete Libia, Pertsiar Golkoko etab.eko gatazketan, Morón eta Ro-

tako baseetan ez dela arma nuklearrik egon?

3- Estatu Batuen presentzia militarren murrizketa.

Hiru baldintzak ez betetzearen susmoz gain, Erakundearen barruan egoteak defentsa aurrekontua handitzea eta arma-industriaren potentziazioa suposatu du. Aldi berean, Europako industria militarren proiektuaren barruan (EFA konbateko hegazkinen eraikuntzan, Fragata 2000...) ejerzitoko gerra material sofistikatu gehiago egiten jarraituko dute, "Explosivos Rio

Tinto" bezalako lantegietan lanpostuak mantenduko direlarik.

Orain telebistan Zaireko imajinak ikustean, gehienak hunkitu egingo dira, baina hemendik astebetera laguntza humanitarioa bidaltzen dutela ikusiko dugu, eta egunak pasa ahala, ahaztu egingo da hango

arazoa nahiz eta egoerak antzera jarraitu.

Nik dagoeneko hozkailuan (gaur egun goa FAGOR, hurrengo beharbada DAEWOO) dagoen yogurra dastatu eta Durangorantz joango naiz. Nahiz eta Konstituzioa ez onartu, ofizialki jaieguna denez, Euskal Diska eta Liburu Azoka miatzeko egun aproposa iruditzen zait. Beharbada Iruñeako intsumitu batek argitaratu duen liburuarekin etxeratuko naiz.

"NATOren barruan egoteak defentsa aurrekontua eta arma-industria handitzea dakar"

HARRIGORRIGOIKO ERROTABERRITARRAK





Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR

☎ 74 41 12

Publizitatea:

☎ 74 37 04

Faxa: 74 37 04

ARGITARATZAILEA

Elgoibarko Izarra

LAGUNTZAILEA

Elgoibarko Udala

ZUZENDARIA

Ainhoa Lodoso

KAZETARIAK

Ainhoa Lodoso, Jasone Osoro

PUBLIZITATEA

Myriam Aldazabal

MAKETATZAILEA

Maite Rementeria

ADMINISTRAZIOA

Amaia Martin

M. Angeles Ortuoste, Rafa Alvarez

KOLABORATZAILEAK

Irati Agirreazaldegia,

Xabier Ansola, Nekane Aranburu,

Pello Arrieta, Juan Mari Elustondo,

Ina Garagarza, Ane Goikoetxea,

Amaia Gorostiza, Juanito Gorostiza,

Maite Iriando, Edu Iriando, Alberto Iriando,

KOKOE, Imanol Larrañaga, Javi León,

J. Mari Mendizabal, Milagros Oiarzabal,

Benantzio Otaegi, Leire Urkidi,

Aitor Zabaleta, Julen Zabaleta,

Deñe Zabalo eta Lucia Zubiaurre

BANAKETA ARDURADUNA

Imanol Larrañaga

INPRIMATEGIA

Gertu koop. E.

TIRADA

3.800 ale

LEGE GORDAILUA


SS-1.038/92

ISSN

1133-021X

BARRENEk ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Elgoibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria.



Gazteak eta antimilitarismoa

Ezer baino lehen, gure poza adierazi nahi dugu IMHko eta Me-kako gazte talde batek antimilitarismoaren inguruan BARRENen bidez erakutsi duen interesarengatik. Harrigarria baina pozgarria da gazteek “gehiago” eskatzea (gogoratu 173. zenbakian pasibitatea lepora-tzen zigutela).

Halere, egiten zaigun kritika horri datu asko falta zaizkiola iruditzen zaigu: zer eskatzen zenioten zehazki Talde Antimilitaristari? Zer da jarrera pasiboa izatea? Zenbat lagun kritika da (3 lagun, 30 lagun, 300 lagun?) Ba al dakizue zein den Taldearen egoera eta zer egiten duen urtean zehar, eta zein ekintza egin dituen zozketak direla-eta?...

Jarri al zarete pentsatzen zein den talde Antimilitaristak behar lukeen bezala ez funtzionatzearen arrazoiak? Hona hemen hiru-lau datu adierazgarri: joan den lau bat urtean, besterik ezean, jende beretsua (eta gutxi) gabiltza lanean baliabide gutxirekin. Hitzaldiak antolatu ditugunean, gazteen erantzuna oso eskasa izan da. Zozketa dela-eta bailarako manifestaziorako deialdia egin eta garraioa jarri dugu aurten ere, eta 7 gazte bakarrik joan gara Elgoibartik,... pasibitatea “aurpegiatzea” baino ez al da hobe arazoari “aurpegi begiratzea” eta aktiboki parte hartzea?

Zaila egiten da horrela Taldeari freskotasuna eta bizitasuna ematea. Eta ez dugu nahi greba egun bateko freskotasuna, luzarorako osasuna baizik.

Hortaz, ikasle talde horri eta Elgoibarko neska-mutil guztiei dei zabala egiten dizuegu, hamabostean behin, astelehenetan, Muguruzako Eskola Zaharretan dugun lokalean, gaueko 21,30etan egiten ditugun bileretara etortzeko (hurrengoa abenduaren 9an). Denon artean Talde Antimilitarista antimilitaristen talde zabal eta dinamikoa bihurtzea lortuko dugun esperantzarekin, errespetoz

Elgoibarko talde Antimilitarista

Zazpiki Gazte Asanbladarekin

Zazpiki Irratiak irriti libre bezala eta emisora aske eta alternatibo bat aurrera eramateko lanean diharduen gazte talde bezala, ongi baino hobeto ezagutu eta pairatzen ditu gure ekimenak martxan jartzeko Udaletik jartzen zaizkigun trabak. Badakigu gazteok gozatu ahal izateko lokalik ez egoteak zer adierazten duen. Nahiz eta Elgoibar erabilerririk gabeko eta hutsik dauden lokalez gainezka egon, hauek erabiltzea ukatzen digute etengabe. Bat egiten dugu Gazte Asanbladak herriko gazteontzat leku apropos bat lortzeko daraman borrokarekin, bertan, ekintza kulturalak, aisialdikoak, txarлак, eztabaidak etab. antolatu ahal izateko. Inongo etekin ekonomikorik bilatzen ez duen lokal bat, zeinen jabetza bakarria gazteona izango den. Espekulatzaile eta etekin ekonomikoa besterik bilatzen ez dutenentzat alternatiba bat. Honegatik Zazpiki Irratiak Gazte Asanbladarekin batera, Gaztetxea Orain!! eskatzen du.

Zazpiki Irratia

Gaztetxea beharrezkoa

Ekintza kultural nahiz beste edozein ekintza alternatibo antolatzeko, gure arazoez hitz egin eta une gozokak dastatzeko, gazteok dugun lokal baten premia (begi)bistakoa da.

Garate alkatea eta bere inguruko “hipokrita-demokrata” guztiengana-ko mezpuzua adierazi nahi dut. Gazte Asanbladari gaztetxe baten aldeko borrokan oztopoak baino jartzen ez dizkietelako eta herriko gazteon %85ak beharrezkotzat jotzen duguna kontuan hartzen ez dutelako.

David Fernández

GALDERAK

◆ “Kontrolatzen al ditu Udalak txakur jabeak txakurrek kalean kakarik egin ez dezaten?”

Sarjentuari galdetu eta baietz erantzun digu. Araudi bat omen dago eta hau betearazten ahalegintzen dira. Adibide bezala, Leku-Ederren txakurrik ez dela ibiltzen esan digu. Eta gainera, txakur jabe bat edo beste denuntziatuta daude txakur kakak dira eta.

KEXAK

◆ Ikastolako DBHko 1. mailako 9 neska Udak **Liburutegikoak errespeturik ez** dietela salatu nahi dute. Beste ikastetxeetakoekie euren baino errespetu gehiago egi die eta arrazoirik gabe Liburutegitik bota egiten omen dituzte.

◆ “Zergatik ez dute **Erretxindin eskelarik jartzen?** Bertan bizi garenok ez al daukagu zein hildan jakiteko eskubiderik?”

TXALOKAK

◆ Ikastolako DBHko 1. mailako ikasleek Donostia-ko **Txuri-Urdinera irteera antolatu duten gurasoak** txalotu nahi dituzte.



◆ Irakurle batek deitu digu **Udal Kirol Patronatua** txalotzeko. Bere esanetan, Kiroldegiko kartelxo eta izen guztiak **euskara hutsean** ipintzea txalotzeko modukoa da.

B A I E S A N ?



Ainhoa Lodoso

Atal honetan astero-astero telefono dei bat egingo dugu gai batzuen inguruan berba egiteko. Hasteko, gure geure buruari egin diogu lehen deia eta **BARRENEko** aldakuntzei buruz jandungo dugu.

– **Zergatik irudi eta eduki aldaketa?** Duela bi urte edo pasatu dira **BARRENE**n itxura eta zenbait atal aldatu edo berri genuenetik. Puntako astekaria, oraindik gaztea, baina heldua izan nahi du **BARRENE**k. Orain arte zeukan “trajea” txiki geratu zaio eta jostunak berri bat egin dio.

– **Zein dira egindako aldaketak eta berrikuntzak?** Bistakoa denez, eskuartearen duen **BARRENE**n itxura, joan den astekoarekin alderatuz, erabat ezberdina da. Diseinu berria dauka, lehen aipatzen nuen “trajea”. Atal berriak ere martxan jarri ditugu, hala nola, zorion agurren atal handiagoa (argazkien bidez zorientzeko aukerarekin), kexa, txalo edo galderak argazkiarekin, urtariletik aurrera hasiko den lehiaketa, “Gaztaroa aro eroa” atalean elkarriketa sistema berriak, eta, zutabe hau berau ere atal berri bat izango da. Txoko honetan asteko berri baten inguruan protagonista bat aukeratu eta pare bat galdera egingo dizkiogu.

– **Lau urte beteko ditu BARRENEk Olenzero egunean. Beste lau urte egiteko ilusiorik?** Ilusioa ez da sekula galdu behar. Batzuetan indarreko kale egiten dizute baina gure atzetik beste batzuek etorriko direnez, lau, zortzi, hamabi, hamasei etab. ere beteko ditu **BARRENE**k.

Hemendik aurrera zure ametsetako bidaiak CLASSYn aurkituko dituzu.

Classy

San Frantzisko, 56
Tel-Faxa: 74 02 40
ELGOIBAR

ASTEBURUAK

5.450 pta.
Lo + gosaria + afari bat
Cantabria, Nafarroa,
Errioxa, Andorra,...

HEGAZKIN BIDAIK

Joan-etorriak
Madril 10.900 pta.
Bartzelona 15.600 pta.
Malaga 16.900 pta.

Elgoibartarrak liburu artean

Egunotan, Durangoko azoka dela eta, liburugintza bueltaka dabil bazter guztietan. Guk ere gai horri heldu nahi izan diogu eta, urrutira joan gabe, Elgoibarren arakatu dugu eta uste baino dextente liburu gehiagorekin egin dugu topo. Poesia, saiakera, nobela beltza, ipuina, artea, testu liburuak... denetik aurkitu dugu. Aste honetako protagonistak idazleak dira, idazle elgoibartarrak. Euren hitzak aitzakitatzat hartuz osatu dugu erreportai hau. Gabonei begira zalantzarik izanez gero, ez da txarrena herritarrek idatzitako libururen bat hartu eta bertan murgiltzea. Aukera behintzat, badago.

ALBERTO AGIRREAZALDEGI

- Heriotza Euskal Herrian, 1989

ANDRES ALBERDI

- Eskola Gramatika, 1996
- Manuel Larramendi (Bidegileak saila), 1991
- Agustin Iturriaga (Bidegileak saila), 1990

PELLO ARRIETA

- Elgoibarko ondare historiko-artistikoa: arkitektura zibila, 1996
- Hainbat testu-liburu geografia-historia eta arteari buruz (Lantaldean)

EUSKARA MINTEGIA (IÑAXIO GARMENDIA, ANGEL UGARTEBURU, ANDRES ALBERDI ETA MYRIAM VILLASANTE)

- Euskal Hizkuntza eta literatura (lau tomo), 1986-89
- Hiztegia lantzen, 1987
- Euskal Hizkuntza eta literatura I eta II

Alberto Agirreazaldegi

Filosofia eta Letrak ikasi zituen eta gaur egun UZEIko zuzendaria da. Liburu bat argitaratu zuen 1989an, "Heriotza Euskal Herrian". "Karreraren nengoela tesia egin nuen gai horri buruz. Urte batzuk geroago euskaratu, gaurkotu eta argitaratu egin nuen". Gauza bitxi asko ikasi zituen, "esate baterako, garai batean, haur jaioberriak etxeko teilapean lurperatzen zituzten, etxean. Eta ortuan lurperatzen zutenean ere, beti teilak jartzen zituzten, etxearen muga mantendu nahian edo".

Andres Alberdi

Elgoibarko Institutuko euskara mintegiko partaide bezala hainbat testu-liburu argitaratu eta gero, aurtan atera berri du bere azken liburua, honako hau bakarka, "Eskola gramatika". 12 eta 16 urte bitarteko ikasleei zuzenduta dago,

"kontsulta modura gorputz gramatikala behar zutelako: deklinabidea, sintaxia, testu tipologia, kontestua...". Azaldu digunez, "gramatika testual berriari forma eman behar izan nion adin horretako jendearentzat egokituaz. Gauza asko eginda zeuden, klasean erabilitako testuak direlako".

Pello Arrieta

Duela pare bat hilabete, "Elgoibarko Hondare Historiko-Artistikoa: arkitektura zibila" liburua kaleratu zuen. "Artea eta historia interesatzen zaizkit. Lehenaldia ikertzea, artxiboetan begiratzea... Idaztea lan horren ondorioa da". 1979an hasita hainbat testu liburutan kolaboratu izan du Pellok, "garai hartan ez zegoen arte eta historiari buruzko testu libururik euskaraz. Talde bat osatu eta hainbat liburu argitaratu genituen". Bere proiektuen artean Elgoibarko arkitektura erlijiosoari buruzko eta baserrien arkitekturari buruzko liburu bana daude.

Alberto Agirreazaldegi

Pello Arrieta



Hasier Etxeberria

Gotzon Garate

Mikel Hernandez

Juan Igartua

bat da". Gainera, "gaur egun bizi garen eritmoan oso egokiak dira ipuinak, egun batean irakur ditzakezulako". Hasierrantz "Cortazar eta Borges ipuin-gintzan zoragarriak dira". Liburu bat gomendatzekotan, Horacio Quirogaren, "Cuentos de la selva" aipatu digu.

Gotzon Garate

Gaztetan nobela beltza asko irakurri zuen eta, esan digunez, "beharbada horrek bultzatuta idatzi izan ditut nik ere jenero horretakoak. Maite ditudan motako elaberriak idazten ditut". *Izurri Berria* berezia da Gotzontzat, "irakurle- en artean harrerarik onena izan duen liburua delako". Baina bere ustez, *Lehortean* literatura aldetik hobe da, "batzuetan gertatzen da kalitateak zerikusirik ez izatea irakurle- en harrerarekin".

Roman Garate

Filosofia eta etikari buruzko liburuak idatzi ditu Roman Garatek. Gaur egun liburu berri batean sartuta dago, "nire bizitzako liburua izan daitekeena idazten ari naiz. Morala, duintasuna eta Jainkoa aztertzen ditut, horiek guztiak Nietzsche-rekin eztabaida eginaz". Romanen iritziz Nietzsche "jenio bat da. Beste inork ez du kristautasunaren aurka hain gogor egin. Oso interesgarria iruditzen zait autore hau aztertzea".

Mikel Hernández Abaitua

37 urteko elgoibartar honek Euskal Filologia ikasi eta gaur egun irakaslea da Kontatu digunez, "etxean ez geneukan telebistarik, amak ez zuelako nahi. Horregatik, asko irakurtzen zen gurean. Gogoan dut gauero, ohera joan aurretik familia guztiak liburua izaten zuela esku artean". Mikelek ipuina du jenerorik maiteena, "izaera propioa duen jeneroa da, ez nobela idazteko

entrenamendua. Merezi duen errespetua ez du."

Juan Igartua


Filosofia eta Zientzia politikoak ikasi zituen. Katedraduna da zuzenbidean eta EHUko Zuzenbide fakultateko irakaslea. Bere liburu guztiak, bat izan ezik, zuzenbidea eta politikari buruzkoak dira eta gaur egun beste bat prestatzen ari da, "nolabaiteko debate bat da epaileek har ditzaketen erabakien inguruan". Juanen liburu gehienak abokatuei eta zuzenbidean espezializatuak daudenei zuzenduak daude, nahiko teknikoak dira.

Edu Iriondo

Mungian bizi da elgoibartar hau. Lauaxeta institutuan hizkuntza irakaslea da eta lantaldean argitaratu izan ditu testu liburuak, "batetik nire lanbidea delako eta bestetik, hutsunea zegoelako arlo horretan". Dena dela, Eduri literatura asko gustatzen zaio eta egunen batean litekeena da berak ere arlo horri heltzea, "orain ez daukat denborarik baina aurrera begira... Batek daki!".


Koldo Lizarralde

Jaiotzez Pasai San Pedrokoa da Koldo Lizarralde baina urte asko daramatza Elgoibarren. 18 urte zituela Intxaurren-



Edu Iriondo

Koldo Lizarralde



Andres Alberdi

Angel Ugarteburu

Inasio Garmendia

Myriam Villasante

(aurrekoak berrituta), 1992-9

HASIER ETXEBERRIA

- Ipuin ezberdinak eta erregalokoak, 1984
- Estatua baten historia, 1988
- Mugetan, 1989
- Alajaineta, 1995
- 60 setas básicas (multimedia gida-liburua)
- Sukal Hiztegi partikularra

LUIS EZENARRO

- Elgoibar: El fuero de las ferrerías, 1980
- Elgoibar: De las ferrerías a la máquina herramienta, 1996
- Las casas de Carquizano y Zabala de Elgoibar, 1975

GOTZON GARATE


- Marxen marxismoa, 1971
- Marx eta nazioa, 1972
- Marx y los nacionalismos separatistas, 1974
- Marxen ondoko errebisionismoa, 1974
- Maoren marxismoa: maoismoa, 1977
- Leninen marxismoa: leninismoa, 1983
- Lenin eta nazioen autodeterminazio eskubidea, 1980
- Nafarroako Ezkurran, 1982
- Aldarte oneko ipuinak, 1982
- Oroitzapenetan, 1977
- Lehortean, 1977
- Esku leuna, 1977
- Elizondoko eskutitzak, 1977
- Goizuetako ezkongaiak, 1979
- Izurri berria, 1981
- Alaba, 1984
- Muskillak, 1980
- Hedesen erresumarantz, 1983
- Zilarrezko gazteluaren kronika urratua, 1992
- New York, New York, 1988
- Euskal elaberrien kondaira, I, 1983
- Euskal elaberrien kondaira, II, 1985
- Euskal elaberrien kondaira, 1991
- Erderakadak, 1988
- Euskal atsotitzak, 1995

ROMAN GARATE

- Nietzsche, su ufilosofia y su tragedia en torno del bien y del mal, 1968
- "La iglesia en dialogo con nuestro mundo, 1967
- Lanaren antropologia, 1973-1985
- Etika sarrera eztabaidan, 1990
- Etika eta askatasuna, 1993
- Etika y libertad, 1995

MIKEL HERNANDEZ ABAITUA

- Papinen erreinua, 1983



Benantzio Otegi

Iñaki Perez

Jon Suarez

Pedro Migel Urruzuno

doko klub batera joaten omen zen eta han sortu zitzaion etnografia eta historiarekiko zaletasuna. Gauza ezberdinak egin ditu eta aspaldian Elgoibarri eta bertoko ohiturei buruzko hainbat liburu argitaratu ditu.

Benantzio Otaegi

Herriko parrokoa dugu Benantzio Otaegi. Orain dela 26 urte historiaurreko gizarteei buruzko liburu bat argitaratu zuen, “gizarte ezberdinetan erlijioak izan duen papera aztertzea interesatzen zitzaidan. Garai hartan Usurbilen erlijio eta euskara klaseak ematen nituen eta materiala banekuan idazten hasteko”. Aranzadi elkarteko Jesus Altunak zaleztasuna sartu zion gai hauei buruz, “berarekin hasi nituen lehen pausoak eta zaleztasunak hor dirau”.

Iñaki Perez Armendia

Otsailean kaleratu zuen bere lehen liburua, “La piel del tiempo”. Ipuin bilduma da, 17 urte zituela idatzitakoak ere sartzen dituelarik, “asko aldatzen da idazteko era urteek aurrera egin ahala. 17 urterekin idazkera askoz anpuosoagoa nuen, hitz arraroak erabiltzeak aberastasuna esan nahi zuela uste nuen. Gero konturatzen zara ez duela zerikusirik”. *La piel del tiempo* bere diruaz argitaratu zuen. Beste bi ere baditu etxeko kajoian gordeta, “‘El sombrero de Napoleón’ eta ‘Ya te cambié los gladiolos, R.C.’ Argitaletxeetara bidali baina bueltatu egin dizkirate”. Halere, Iñakik ez du etsi, “lelengo bi egunak flojo uzten bazaitu ere, gero indar handiz ekiten diozu berriz idazteari”. Gaur egun beste liburu bat ari da idazten.

Jon Suarez

Aurten argitaratu du bere lehen liburua: “Kaixo Mirna”. Halere, lanbidez

irakaslea den elgoibartar honek 50 libururitik gora itzuli izan ditu, guztiak haur literaturaren barruan, “SM argitaletxeko Bapore sailean, esaterako, Mundu Harri-garria bildumako liburu guztiak neuk euskaratu ditut”. Itzulpen guztiak enkar-guzko lanak izan dira, “gainontzean oso zaila da euskaraz zerbait argitaratzea”. Itzulpengintza oso lotua dela dio, “askoz lan mekanikoagoa da. Zuk sortutako nobela denean, sormena zurekin oheratzen den arren, gerta daiteke zurekin ez esnatzea. Literatura eta sormena, asko landu behar dira”.

Angel Ugarteburu

Abarak eta 2garren Abarak. Biak Angel Ugarteburuk moldatutako Kirikiñoren ipuinak dira, “bizkaieratik euskara batura”. Bere asmoa, “Mañariako hizkera jende guztiak ulertzeko eran jartzea zen”. Ipuin bilduma da liburua, “ahozko literatura tradizioaletik hartuak batzuk, gertakizunak beste batzuk...”. Abarak hitzak, “udazkenean haizeak botatako adar txikiak esan nahi du. Abarak sua pizteko oso onak dira. Hitz jokoa egin nahi izan genuen, euskararen inguruko irakurzaletasuna indartzeko”.

Myriam Villasante

1988an argitaratu zuen Myriam Villasantek “Xaguak soka saltoan” poema liburua, “poesia naif-a, injenuoa da, onomatopeietan oinarritua. Oso intimista”. Urtebete beranduago argitaletxeak itzulpen bat enkargatu zion, Raul Guerra Garridoren, “Benetako amodio eztizkoa”. Herri Institutuko euskara mintegiarekin batera hainbat testu-liburu idatzi zituen Myriamek. Gaur egun nahiko utzita ditu kontu horiek, “ume jaio berri bat daukat eta erabat absorbitzen nau. Uste dut hazten direnean berriz helduko diodala literaturari”.

- Ispiluak, 1985
- Etorriko haiz nirekin?, 1991
- Bazko arrautzak, 1995
- Literatura eta Rock and rolla, 1995
- Ahotsak, 1996

JUAN IGARTUA

- Método estructural y método histórico en la antropología de Levi Strauss, 1975
- La interpretación de la constitución, 1984
- Los jueces en una sociedad democrática, 1986
- Aplicación judicial del derecho, 1989
- Márgenes y límites en la aplicación del derecho, 1992
- Valoración de la prueba, motivación y control en el proceso penal, 1994
- Teoría analítica del derecho, 1994

EDU IRIONDO

- Hitzak irudiz ikasiz, 1990
- Baietz! (6 tomo), 1984-95
- Idatz (2 tomo), 1995-96

KOLDO LIZARRALDE

- El Hospital de San Lorenzo y la ermita de la Magdalena, 1995
- Elgoibar, lanak eta mendeak, 1995
- El convento de San Francisco de Elgoibar, 1990
- Apuntes Etnográficos I, 1994
- Ermitas de Elgoibar, 1994

BENANTZIO OTAEGI

- Lehen gizarteak, 1971
- Bibliako kontatera ederrak, 1985 (lantaldean)

IÑAKI PEREZ ARMENDIA

- La piel del tiempo, 1996

JON SUAREZ BARRUTIA

- Kaixo Mirna, 1996
- 50 liburu inguru ditu itzulita.

ANGEL UGARTEBURU

- Abarak, 1980
- Bigarren. Abarak, 1981

PEDRO MIGEL URRUZUNO

- Ipuinak 1988
- Iru Ziri (ipui ta bertso), 1965
- Ur-zale baten ipuinak, 1965

MYRIAM VILLASANTE

- Xaguak soka-saltoan, 1988



BARREN sariak eta kirolari onena 96

Abenduak 21,
larunbata
Eguerdiko
1,00ean
Kultur Etxean

Olentzero egunean, BARRENeK 4. urtebetzea egingo du. Ospatzeko, BARREN sarien laugarren edizioa eta 1996ko KIROLARI ONENAREN aukeraketa antolatu dugu. Epaimahai kualifikatu batek sariak nori egokitu erabaki du. BARRENeN egunero lanean gabiltzanok, zuen jarrera paregabea eskertu nahi dugu. BARREN SARIEK astekarian kolaboratzen duzuen guztiok biltzeko aitzakia izan nahi dute.

Kolaboratzaile guztioi eskerrak eman nahi badizkizuegu ere, ezin denoi saria eman. Horregatik urtero antolatzen dugun sariketa honek lagun arteko bilkura izan nahi du izan eta ez zuen arteko lehiarako arrazoi.

96ko KIROLARI ONENAK



PILOTA Karmel Leon, 16 urte

- Iruneko eta Zaldibiko txapelketetan finalista. • Intxaurrendoko eta Deba arroko txapelketetan finalerdietara iritsi zen.
- Herrien arteko txapelketan lau partidu irabazi zituen. • Gipuzkoako txapelduna eskolarteko txapelketan, kadeteetan.
- Gipuzkoako txapelduna jubueniletan.



ARETO FUTBOLA Manu Rey, 30 urte

- Gipuzkoako 1. mailako jokalaria onena. • Elgoibarko bi taldeetako jokalaria guztien artean, bigarren golegilerik onena izan da.
- Bere taldea, 1. mailako Gipuzkoako txapeldunordea izan da.



JUDO Esther Idiakez, 13 urte

- Euskadiko eta Gipuzkoako eskolarteko judo txapelduna. • Urezko domina Tamos-eko (Frantzia) Nazioarteko Txapelketan. • Brontzezko domina Euskadiko Federatuen Txapelketan. • Gipuzkoako Selektzio-rako hautatua, 96-04-27. • Deba bailarako infantilen txapelketan urezko domina eta zilarezkoa Legazpikoan, banaka eta taldeka.



KARATEA Nicolas Jimenez, 16 urte

- Kumite (borroka) Txapelketako Gipuzkoako txapelduna (96-5-19). • Kata (teknika) Txapelketako Gipuzkoako txapeldunordea bi aldiz (96-5-19 eta 96-10-11n). • Kluben arteko txapelketan, Kata txapelduna. (96-6-29).



MENDIA Josu Merino, 25 urte

- Euskal Federazio eta Goi Mendi Eskolako monitorea. • Ur-tarrilean Patagoniako Cerro Torre mendebal aurpegitik eskalatzeko asmoa dauka. Lortuz gero, bide horretatik egiten duen lehena izango da Estatu espainiarrean.



EHIZA Patxi Arriola, 32 urte

- Elgoibarko ehiza txikian txapelduna. • Euskadiko Ehiza Txapelketan laugarren geratu zen. • Iazko Espainiako txapelduna izateagatik Espainiako ehiza txikiko finalerdietarako sailkatu da automatikoki. Bertan, hilaren 21ean, Errioxan izango den finalerako sailkatzea lortu du.


HERRI KIROLAK Angel Ibarluzea, 29 urte

- Gipuzkoako Bolo Txapelketan banaka 7.ena izan zen, bina-ka hirugarrena eta taldeka txapelduna San Migeleko taldearekin. • Euskadiko txapelketan banakako eta binakako kategorian bigarren geratu zen, eta taldeka lehenengoa. • 1996ko Gipuzkoako bolalarik onena izendatu dute.



TXIRRINDULARITZA Arkaitz Martinez, 16 urte

- Urnietako eta Aretxabaletako txirrindulari lasterketetan lehena izan zen, mendiko saria lortu zuelarik. • Tolosako Gipuzkoako Txapelketan 3. izan zen. • Beste lasterketa batzuetan lortutako postuak: Arrasaten 5.a, Oiñatin 4.a eta Beasainen 6.a.



ATLETISMOA Ana Etxaniz, 11 urte

- Alebinetako lehen urtean, luzera jauzian eta 150 hesietan hirugarrena izan da Gipuzkoako Txapelketan. 60 eta 2.000 metroetan Gipuzkoako Txapelketarako marka egin zuen. • Hirugarren postua Gipuzkoako Txapelketan taldeka. • Zarautz eta Iurretako krosetan irabazle eta Hondarribi eta Irunen bigarrena izan da.



FUTBOLA Josu Ibarra, 18 urte

- Real Sociedad Bn hasieran ordezeko eta gero titular izan da. 8 gol egin ditu. • Espainiako 18 urtez azpiko selektioarekin jokatu du Gran Canarias-en bai eta Europar txapelketan ere txapeldunorde izan da. Datorren urtean izango den Masiako munduko txapelketarako sailkatu da selektioarekin.




ESKUBALOIA Manolo Herrero, 26 urte

- Arrateko Ohorezko B Dibisioan jokatzeko ari da titular. • Denboraldi honetan partidu bakoitzeko 6 gol sartu ditu batzaz/beste. • 14 urte zituenetik ari da jokatzeko Arrate taldean.



SASKIBALOIA Mikel Artola, 20 urte

- Elgoibarko saskibaloi taldeko saskiratzaille onena aurten denboraldian. • Saskibaloiaren lehen denboraldia izanik, oraindik ez dute txapelketa inportanterik jokatu.



Ba al du- zu irakurt- zeko zale- tasunik?



LOLI OTERO

28 urte, administraria

Lehen gehiago, orain umearekin ez daukat horrenbeste denbora. Halere, gauero tartetxo bat hartzen dut irakurtzeko. Agatha Cristhierenak gustatzen zaizkit.



AGUSTÍN CRISTÓBAL

45 urte, industrialia

Bai, Círculo De Lectores-en nago eta ixa egunero irakurtzen dot. Hilian liburu bat irakurtzen dot, segun eta ze lodiera dakan. Oin "Los Pilares de la tierra" irakurtzen nao.



M. CARMEN CID

43 urte, etxeoandrea

Batez ere egunkariak eta aldizkariak irakurtzen ditut, libururik ez. Badakizu, gure garaian ez ziguten horrelakorik irakatsi eta ohiturarik ez dut inoiz izan.



ANTONIO MIGUEZ

57 urte, jubilatua

Ez daukat zaletasunik, etxean liburu mordo bat dagoen arren semeak irakurtzeko. Umetan apenas jaso nuen eskolarik. Egunkaria gainbegiratzen dut.



VICTOR BAZ

28 urte, Trat. Termikoak

Gustatzen zait irakurtzea, fikzioa, terrorea, poesia... Denetik piskat. Gustavo Adolfo Bequer gustatzen zait asko. Orain Stephen King ari naiz irakurtzen.



M. CARMEN BLANCO

49 urte, etxeoandrea

Aldizkariak irakurtzen ditut batez ere. Liburuak noizean behin, alabak liburutegitik ekartzen dituenak, urtean bizpahiru. Diarioak gustatzen zaizkit asko.

AZALEA edergintza
 — MARI KARMEN BERECIARTUA —
 Estetizista · Bisajista · Masajista
 GORPUTZ eta AURPEGIRAKO tratamenduetan **azken berrikuntzak**
 Trenbide kalea, 3, behe (estazio parean) - Tel. 74 03 10


ZURE HAURRENTZAKO PRODUKTUEN BANATZAILEA EUSKAL HERRIAN:
 - Kotxeak eta sehaskak
BAMBINO
 Estazio kalea 3
 ☎ 20 69 93
EIBAR
DURANGO: ☎ 681 14 83 / 620 35 72 - **BILBO:** ☎ 444 71 04


La Previsora Bilbaina
Aseguradora Riazor, S.A.
 Aseguru konpainia (Eibarko delegazioa)

MUGICA Funeraria
 — 24 orduko hileta zerbitzua —
 Bidebarrieta, 20 - behe, esk. – 20600 EIBAR
 Tel: 20 19 51

Zenbat liburu irakurtzen ditugu elgoibartarrok?

Durangoko Euskal Liburu eta Diskoen azoka bisitatzeko egunak dauzkagu atarian. Honen bueltan Elgoibarren irakur zaletasunari buruzko nondik-norakoak jaso nahian Udal Liburutegira eta herriko liburudendetara zuzendu gara eta hona hemen bildu ditugun datuak.

Joan den asteko ostiralean, haurren artean 34 liburu utzi zituzten Udal Liburutegian etxera eramateko, 30 euskaraz eta 4 gaztelaniaz. Euskarazko liburuak eskolan irakurtzera behartzen dituztenak ziren. Liburutegian bertan, euskarazko 10 liburu eta gaztelaniazko 25 erabili ziren kontsulta lanak edo eskolako tareak egiteko.

Helduei dagokienean, 45 liburu utzi ziren etxean irakurtzeko: 20 gaztelaniaz eta gainontzeko 25ak euskaraz. Azken hauek geografia, historia eta materia ezberdinei buruzkoak direla adierazi digute Liburutegikoek. Izan ere, mailegatutako argitarapenen kopurua oso altua da sasoi honetan, eskoletan lan asko bidaltzen duten garaia baita. Eskoletan lanik bidaltzen ez dutenean beheranzko joera nabaria izaten da. Aipatutakoez gain, 10 komiki eta 15 Compact disc eramán zituen jendeak etxera eta bertan 5 aldizkari irakurri ziren.

Helduen gustuei buruz hitz egiterakoan, Liburutegian eta herriko liburudendetan esan digutena bat datoz. Liburutegira doazen helduek, 35 eta 50 urte bitartean daudenek irakurtzen dituzten liburuen %98a best-seller delakoak dira. Honez gain,

aldizkari espezializatuen demanada ere ba omen dago.

Helduen artean emakumeak dira batez ere liburuak erostera joaten direnak, gizonezkoak ere bai, baina gutxiago. Amodiozko liburuen bila joaten omen dira emakumeak Liburutegira, erostera, aldiz, modan dauden edo merkaturatzen diren azkenen bila. Hauetatik, autore liburuak deitzen direnek izaten dute harrerarik onena eta azkenaldi honetan emakumeek idatzitakoek ere bai.

Bai dendetan bai Liburutegian, euskarazko liburuen eskaria oso kaxkarra da. Aste batean, gehienez jota, euskarazko 4 liburu baino ez dira mailegatzen Liburutegian. Elgoibarko idazleen obra ez da ezaguna gure artean. Jendeak ez ditu elgoibartarren liburuak eskatzen.

Ez zuen arrazoi faltarik zera esan zuenak: "Inor ez da profeta bere aberrian". Beste norbaitek gaineratuko luke: "Are gutxiago idazleak badira".



ISPILUARI DEGIRA



*Marichu
Aguinegamezcosta*

FOTERO
okindegikoa

- **Ogitartekorik gustukoena?**
- Tortilarena.
- **Zerk ematen dio gatza bizitzari?**
- Lagunekin buelta bat ematera urtetziak.
- **Zein tokitako palmerapean egon nahi zenuke?**
- Karibe aldean.
- **Ogiaren azala ala mamia?**
- Azala gehixo gustatzen jata.
- **Etorkizunaren kolorea?**
- Beltza.
- **Esnea zopekin ala kroasanarekin?**
- Kroasan batekin.
- **Ba al duzue bideorik?**
- Bai, baina ez dugu asko erabiltzen.
- **Irakurtzen al duzu aldizkari arrosarik?**
- Ez.
- **Zenbategian behin joaten zara ileapaindegira?**
- Luzia dakatenian, moztera.
- **Besteengan onartzen ez duzuna?**
- Arrazoirik gabe "faenaren" bat egiten badidate ez dut barkatzen.
- **Zeri buruzko hitzaldia entzun nahi zenuke?**
- Medikuntzari buruzkoa.
- **Fededuna al zara?**
- Fededuna bai baina praktikantea ez.
- **Zein animaliak beldurtzen zaitu?**
- Gehixenek, ez jataz gustatzen.
- **Zerbait ospatzeko erarik onena?**
- Ardo on batekin.
- **Egingo al zenuke zirujua estetikoak?**
- Behar banu bai.
- **Argaltzeko dietarik egin al duzu inoiz?**
- Ez.
- **Etxean jaten duzun ogia?**
- Integrala gustatzen jata.
- **Zer birrinduko zenuke?**
- Droga.

● Euskaldunon

Egutegia salgai

Euskaldunon Egunkariak urtero argitaratzen duen egutegia salgai dago nahi duenarentzat. 97ko Egutegia 600 pta.ren truke eskuratu ahal izango da Elgoibarko Izarra Kultur Elkartearen egoitzan (Ubitarte 4, behe), BARRREN astekarian (Nafarroa Plaza 2, behe) edo herriko tabernetan.

● Emakumeentzako ostalaritza ikastaroa

Elgoibar, Mendaro, Mutriku eta Soraluzeko 30 emakume Udalak eta Jaurlearitzak antolatutako ostalaritza eta nekazalturismo ikastaroa egiten ari dira. Oinarritzko ikasketak edo langabeziaren dauen emakumeei zuzenduriko ikastaroa da. Sigma-ko sukaldeetan Bide-Egin-eko teknikarien eskutik, besteak beste, eskal sukaldaritza, taberna eta jangela zerbitzuak, nekazalturismoa eta lanerako orientazioa ari dira lantzen. Oraindik ere ikastaroan parte hartzeko lekua badagoenez, interesa duten emakumeak Udaleko Ongizate Saile-ra zuzendu daitezke.

● Gabonetako argiak

San Frantzisko, San Bartolome, Santa Ana eta San Inazio kaleak goitik behera apaindu dituzte Gabonetako argiekin. Gainon-tzeko kale eta auzoetan argi bana jarri dute. Horrez gain, ohi den bezala, Udaletxea eta Plaza Handiko zuhaitzak ere apaindu dituzte argiekin bai eta Antonio Arri-laga kaleko Pinua ere.

Zazpi bikote omendu zituzten Jubilatuen astean

Jubilatuen Etxeak herriko nagusiei eskainitako astea ospatu berri du. Aste osoko egitasmoa antolatu zuen Jubilatuen Etxeko zuzendaritzak adineko gizon eta emakumeen gozamenerako. Denetik eduki dute: Parrokiko abesbatza, Itxaropena abesbatza eta Musikeskolako kontzertuak, kina berezia, pelikula emanaldiak bidean, 100 otarren zozketa, demaseko txokolada eta 80 urtetik gorakoei omenaldia.

Ohi denez, ekitaldirik hunkigarriena 80 urtetik gorakoei eta urrezko ez-taiak egin dituzten bikoteei egiten

zaien omenaldia da. Joan den ostiral eguerdian izan zen. Zazpi bikote zeuden ekitaldira gonbidatuta: Fausto Vitores eta M. Josefa López, Aurelio Mújika eta Teodora Larreategi, Calisto Zubiaurre eta Josefa Agote, Isidro Osoro eta Fulgencia Agirregomezkorta, Jose Gurrutxaga eta Juanita San Martin, Juan Jose Oruesagasti eta Maria Soraluze eta azkenik, Jesus Arce eta M. Belen Erbias. Aipatutako azken lau bikoteak baino ez ziren omenaldira agertu. Oroigarri, lora eta opariak banatu ondoren, bazkaria eta Gelatxo

eta Duo Plaentxirekin dantzaldia izan zuten. Egun honetan 125 lagun bildu ziren. Jubilatuen Etxeko zuzendaritzak eskerrik beroenak eman nahi dizkio katekista taldeari "txokolatadian eta bazkarian ederki serbidu zebelako".



Komunikabide ofizialen aurrean herriko taldeentzako alternatiba izan nahi du Zazpikik

Zazpiki Irratiak hasi duen etapa berriari buruz hitz egiten jardun zuten zapatuan, Zazpikikoek eman zuten prentsaurrekoan. Zazpikik 13 urte betetzen ditu aurten. Orain artekoaren azterketa eta berplanteamendua egin ondoren, "komunikabide ofizialen aurrean alternatiba izango da Zazpiki, hau da, irrati libre". Era berean, herriko elkarte eta kolektiboei euren ideiak plazaratzeko lekua eskaini nahi die Zazpikik. Horretarako eskatzen duten baldintza bakarra, egiten diren asanbladetara agertzea da.

Egunero 24 orduz

emitituko du eta programa musikal gutxiago eta informatibo gehiago emango dira. Bestalde, lantaldeak eratuko dira, bai irratiaren funtzionamenduari buruzko ikastaro teknikoak jasotzeko, bai ikastaro teorikoetara-

ko. Azken hauetan irrati librearen filosofia, komunikabide ofizialen politika, programa bat antolatzeko jarraitu behar diren pausoak, gidoiak etab. landuko dira. Gaur egun 30 lagun eta 20 programa daude Zazpikin.



Pello Rubio, San Andres azokan saritua

Nekazaritza ekologikoa lantzen duen Txillarre base-rriko Pello Rubio elgoibartarrak, barazkien atalean 1. saria jaso zuen Eibarko San Andres azokan. Kalitatea, barietatea eta barazkiak postuan nola dauden antolatuta hartzen dute kontuan epaileek. Saria 30.000 pta. eta Udalaren oroigarriak osatzen dute. Pellok bailarako lau azoka nagusietan hartzen du parte: Eibarkoan, Mendarion (hilaren 7an izango dena), Elgoibarko Gabon Zahar azokan eta Debako Zoro ferian. Iaz azoka guztietan jasozuen sariren bat eta aurten Biolur Nekazaritza Ekologikoaren Elkarteak antolatzen duen Zeraineko azokan saritua dute. Eibarko saria, beraz, aurten jasotzen duen bigarrena da.



HIESaren Nazioarteko Eguna

HIESaren Nazioarteko Eguna ospatuiragan den igandean, hilak 1. Herriko balkoi eta leihoetan izara zuria lazo gorriarekin jartzeko deia luzatu zuen Errotatxok. Igande eguerdian kontzentrazioa egin zuten Plaza Handian elkartsuna eskatzeko. Azken ekitaldi honetan 50 lagun bildu ziren.



HAIZEA taldearen aurkezpena

Itziar Fernández Emakundeko kideak eman zion hasiera joan den osteguneko Zine klubeko saioari. Haizea Emakume Taldearen gonbidapenari erantzunez, Itziarrek Marlen Gorris-en “Antonia’s line” pelikula aurkeztu zuen. Haizeakoen esanetan, “oso pozik gaude aretoan emakumeak zein gizonak, bai nagusiak eta bai gazteak, bildu genituelako, 150 bat lagun denera”. Emanaldiaren amaieran debate bat izan zen Itziar Fernández-ek zuzendua. “Goizaldeko 1:30ak inguru izango ziren amaitu orduko eta 50 bat lagunek hartu zuten parte”.



Presoen aldeko akanpada

15 kanping-denda eta 25 lagun inguruk hartu zuten parte presoen aldeko akanpagan joan den ostiraletik igandera bitartean. Plaza Handiko arkupeetan jarri zituzten kanpinak eurtik babesteko asmoz. Antolatzaileak oso gustura daude akanpadaren oihartzunarekin. “Jendearen erantzuna oso ona izan da. Elgoibartarrak ezezik, Gasteiztik eta Bilbotik ere hiruzpalau lagun ere etorri dira”. Zapatuan Donostiako manifestaziora joan ziren akanpatuak eta igandean Errotatxoren kontzentrazioa batu ziren partaketa batez lagunduta. Akanpada igande arratsaldean egin dako manifestazio batekin amaitu zuten.

Presoen jarraipenerako batzorde bat eratuko da

Batzordeak Senideen eskakizunak bideratu eta Udala presoen familiakoei hurbilduko die

Duela hilabete izan zen plenoan Elgoibarko Udalak presoen aldeko manifestu bat onartu zuen. Orduan, HBk, Presoen egoeraren jarraipena egingo lukeen batzorde iraunkor bat eratzea proposatu zuen. Joan den ostiralean izan zen plenoan Gobernu Batzordea osatzen duten hiru alderdiek (EAJ-PNV, PSE eta EA) puntu bezala sartu zuten.

Presoen jarraipenerako batzorde iraunkorra Guillermo Garate alkateak, alderdi bakoitzeko ordezkari batek eta presoen senitarteko zein Senideak-eko kideek osatzea proposatu zuen Isaak Loiolak Gobernu Batzordearen izenean. Batzordeak bi helburu nagusi izango ditu: batetik, presoen eta hauen senideen eskakizunak kanalizatzea eta bigarrenik, Udala presoen familiakoei hurbiltzea. Proposamenak alderdi guztien oniritzia izan zuen PPkoarena izan ezik.

IU-EBren moztioa

IU-EB alderdiko zinegotzia den Juan Ignacio Ausinek, funtzionarien sol-

datak ez izoztearen aldeko moztioa aurkeztu zuen. IU-koak Espainiako Gobernuari soldatak izozteko neurria berriz azter dezan eskatzen dio eta EUDELen (Euskadiko Udalen Elkartea) eta langileen ordezkarien esku uzten negoziaketara. Akordiorik egongo ez balitz, Elgoibarko Udala langileei 1997rako IPCaren araberrako igoera onartzera konprometituko litzaiteke. IUren moztioa atzera bota zen EAJ-PNV, PSE eta PPre botuez.

NATOrri ez

HBk 1986an Euskal Herriak NATOrri ezetza eman ziola gogorarazi zuen eta herritarren borondatea errespetatuz, Hego



Juan Ignacio Ausinek soldatak ez izozteko eskatu zuen.

Euskal Herria NATOtik kanpo geratzearen aldeko moztioa aurkeztu zuen. IU-ko ordezkariak puntu bat gehitu zion, "Elgoibar lurralde desmilitarizatu izendatzea eta NAToko indar militarrek hemen aktuatzeko eskubideari uko egitea". Isaak Loiola EAJko bozeramaleak esan zuenez, "ejerzitorik gabeko gizar-

tea utopia hutsa da. Munduan gertazen ari direnarraskiak gelditzeko interbentzio militarrek behar dira. Gu, borondatezko ejerzito profesional baten alde gaude". Bozketan EA eta IU HBren moztioaren alde azaldu ziren, PP abstenitu egin zen eta EAJ eta PSEren aurkako botoez moztioa ez zen onartu.

OIERKI IGOGAILUAK

Urrutira deitu gabe bertakook segituan konponduko dizugu igogailua

(943) 20 35 15 • ABERIAK (943) 20 35 15

Bista Eder, 11 (sotanoa) • 20600 EIBAR

TXURI BELTZ

Taberna

San Franzisko 38

MEKANOSA

Errosario 30
tel: 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ PLANOEN BIRREGILEAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX

ANCHUSTEGUI s.a

ZERAMIKAK

Erakusketa eta bulegoa:
Antonio Arrillaga, 6-8
83 Postakutxa
Tel. 74 33 44 - 74 06 92
Fax 74 37 11

Biltegia:
Arregitorre, 10 - 14 behea
Tel. 74 20 38 - 74 23 71
20870 - ELGOIBAR
Gipuzkoa

Kazetari elgoibartar hau Peru, Ekuador eta Argentinan izan da ETBko beste lankide batekin. Irailean egin zuten bidaia honen xedea "Elkartasunaren bideak" programarako bi erreportaia egitea zen. Hau ez da Aitor Zabalek erreportari gisa egin duen lehen bidaia, lehen ere Ruandan izana baita. Normalean ETBko eguneroko informazioetan lanean aritzen den gazte honek, esperientzia hau "kazetaritzaren munduak eskaintzen dizun aukerarik onena" bezala baloratzen du.

AITOR ZABALEK

"Amazonian naturak markatzen du eguneroko bizimodua"

- Nolatan sortu zitzaizun bidaia hau egiteko aukera?

- Gure helburua Peru eta Ekuadorren erreportaia bana egitea zen ETBko "Elkartasunaren bideak" programarako. Bertan, nazio hauekara Euskal Herriatik Eusko Jaurlaritzak elizaren bitartez bidaltzen dituen laguntzen berri ematen da.

- Eta Argentinan, zer egin zenuten?

- Buenos Airesen egin genuen egonaldiak helburu ezberdina zuen, han Hego Amerikako telebista feria garrantzitsuenean egon ginen. Bertan Galeuska telebista aurkeztu zen, urte hasieran martxan jarriko dena. Kate hau ETB-k, Galiziako eta Kataluniako telebistek sortu dute. Beren

helburua han bizi diren euskaldunengana iristea da.

- Zein da Perura bidaltzen den laguntza mota?

- Perun, Andeen erdian dagoen Cuzco herrian egon ginen. Zonalde honetan nekazariak dira eta patataren produkzioaz bizi dira. Bertara bideratutako laguntza pataten kalitatea hobetzeko da. Cuzco da patataren jatorrizko lekua, bertatik esportatu zen. Patata mota asko daude, baina gaixotasun asko baita ere eta hauek suertatzen direnean arazo larriak sortzen dira.

- Zer ikusi duzue Ekuadorren?

- Pazifikoko kostaldeko Guayaquil herrian izan ginen lehenengo. Hemen elizbarrutiko misioek duten eskola bat ezagutu ge-

nuen. Bertako ikasleak oso gazte kalean lanean hasita-koak dira, orain goizez lan egiten dute eta arratsaldez eskolara joaten dira. Adinaren arabera ikasketa ezberdinak burutzen dituzte; gaztetxoek oinarrizko hezkuntza, eta nagusiagoek lanbide bat ikasten dute.

- Zer irudituko zaizu han aurkitu duzun jendea?

- Guri laguntza asko eskaini digute. Agian gu pribilegiatuak gara zentzu horretan, gu ez goaz turista bezala, baizik eta lanera eta beraiek hau ikustean lagundu egiten gaituzte.

- Ba al duzu oroitzapen berezirik bidaia honez?

- Amazoniako bizitzak harritu nau, han naturak markatzen du eguneroko bizimodua; eurria hasten bada eurria gogor egiten du eta ezin da inora joan, dena moztuta gelditzen da. Han erreka oso garrantzitsua da eta ondorioz eurriak asko eragin dezake.

- Erreportaiak noiz ikusi ahal izango ditugu?

- Ekuadorrekoa pasaden larunbatean emititu zuten eta bestea hil honen erdialdera ikusteko aukera izango dugu.


- Anekdotarik?

- Ekuadorreko Amazonian 24 urtez Juan Santos Ortiz de Villalba elgoibartar misiolaria izan zen lanean. Beraz, ni elgoibartarra nintzela esatean ezaguna egin zitzaien eta hau gauza nahiko harrigarria da. Gainera, misiolariez gain, bertako hainbat jendek ere bazuen gure herriaren berri.

Leire Urkidi

BESTEAK ESANA

"Aitorri oso ondo dagokio bere lanbidea, bere lanean oso murgilduta ikusten dut. Munduko gertakizunetako oso kezkatua dago". JULEN AGIRRE



AZAROAN

●●●● JAIOTAKOAK ●●●●

- Hodei Lemos Bao, (Arazoak 26)

●●●● EZKONTZAK ●●●●

- Daniel Torres Labrador eta M. Angeles Alvarez Fuentes (Aza-roak 23)
- Iñigo Astigarraga Izagirre eta Nuria Bergua Otaegi (Aza-roak 23)
- Xabier Aranbarri Zabala eta Rita Egaña Rementeria (Aza-roak 30)

●●●● HILDAKOAK ●●●●

- Josefa Arce Hernández, 87 urte (Aza-roak 7)
- Ramiro Viña Corrales, 66 urte (Aza-roak 9)
- Jose Gurrutxaga Urbiet, 83 urte (Aza-roak 10)
- Maria Alkorta Gabilondo, 93 urte (Aza-roak 12)
- Isidra Lete Iribecampos, 88 urte (Aza-roak 13)
- Modesto Mujika Juaristi, 67 urte (Aza-roak 16)
- Carmen Zengotita Galdos, 69 urte (Aza-roak 16)
- Pedro Maiztegi Agirregomezkorta, 73 urte (Aza-roak 18)
- Antonio Martin Villalobos, 72 urte (Aza-roak 30)

G O G O R A T U Z

Teodora Gurrutxaga Mugerza

(1906-1994)



- Errosario kalean jaio zen 1906ko azaroaren 9an.
- Gaztetan grabatzaile eta damaskinatu lanetan jardun zuen 25 urtera arte, San Frantzisko kalean zegoen lantegi batean.
- 25 urterekin pelukera ikastera joan zen Eibarko "Lorenzo" ezagunarengana.
- Beranduago, Errosario kalean, Elgoibarko lehen pelukeria ireki zuen.
- Emakume langilea izan zen. Goizetik gauera arte, Elgoibarko eta inguruetako baserrietako hamaika buru orrazten zituen.
- Romualdo Andonegirekin ezkondu zen eta hiru seme-alaba izan zituzten.
- Gerra garaian gartzelara eraman zuten senarra eta Teodora izan zen pelukeria-ko lanarekin familia aurrera atera zuena.
- 50 urte bete arte aritu zen lanean pelukerian.
- Zinea eta nobelak gustatzen zitzaizkion, baita lagun artera Jubilatuetara karta-jokoan egitera joatea ere.
- 1994ko otsailaren 14an hil zen.

DLHko 1-2-3 mailentzat
Abenduak 23-24-26-27-30-31
Urtarrilak 2-3

Goizeko 10etatik
eguerdiko 1etara

Prezioa: 2.500 pta.

Antzerkia, jolasak, Eibarko parke
infantilerara irteera...

Izena emateko:

Elgoibarko Izarra K.E.

Ubitarte 4, behea

Tel: 74 16 26

Epea: Abenduaren 9tik 20ra

Antolatzailea:
Elgoibarko Izarra-ko
ATXUTXIAMAIIKA B.T.

Laguntzaileak:
Elgoibarko
Udala





ste honetako erretratu
Arantxa Bikondoak eta Elena Alberdik lagatakoa da. 1957. urtean Plaza Txikian ateratakoa da kurtso amaieran. Aita Agirre Eskolan ikasten zuten erretratuko neska hauek 13 urte inguru izango dute. Zein diren?

Hona hemen datu gehiago: Atzetik hasita, ezkerretik eskuinera: **Juanita Bueno, M. Jesus Gabilondo, Itziar**

Alberdi, Elena Alberdi, Inmakulada Ansola, Pilar Santos, Balboa, Arantza Bikondoa, M. Jose San Millán eta Rosa Mari Ulazia.

Erdiko ilaran: **Coro Ribero, Florita Mugerza, Arantza Andonegi, Celia Charles, M. Kruz Urzelai, Amparo González, M. Tere Lauzirika, Angelita de la Horra eta Rufina Peñagarikano.**

Aurreko ilaran: **Loli Canabal, Arantza Intxausti, Antonia Linares, M. Luisa Etxabe, Paulina de La Hoz, ezezaguna eta Maribel Angulo.**



ETXEBERRIA

Hileta zerbitzu

OSOA ETA 24 ORDUKOA


KUTXAK - TRASLADOAK - KOROAK

NORBANAKOEI ETA KONPAINIEI zuzenduriko zerbitzuak. Donostia eta probintziako eritetxe zentrotan ere bai.

Santa klara, 16 20 870 ELGOIBAR
 Tel.: (Biltegia) 74 13 27 (Etxekoa) 74 01 17 - 74 16 56 (Mobila) 908 77 07



“Mendixakin disfrutatzia da inpor-



Luis Kortabitarte

- **Adina:** 26
- **Esaera bat:** Txarretik onera eitxia, onetik txarrera baino erreza da.
- **Pasiararako leku bat:** Kalamua, Karakate, Anboto, Izarraitz...
- **Zure bizitza kolore batez margotzekotan?** Berdez.
- **Objektio ala intsumisioa?** Intsumisioa.

– **Noiztik mendizale?** - Lelengo irteerak 16-17 urtekin ein nitxun. 18kin eskalatzen hasi nitzan, kursillo bat ein eta gero. Azkenengo bi urte hauetan lasaixo nabil, lana dala-ta denpora gutxiko dakatelako.

– **Zein menditan ibili zara?** - Piriniuetan trabesiak eitzen hasi nitzan: Infierno, Aneto... tipikuak. Gero, eskalada, Atxarten eta Azkoitxiko kante-za zaharrian. Gero Naranjora hasi ginan juten eskalatzera eta beste leku batzuetara ere bai: Alpietan pare bat aldiz, Andeetan beste pare bat.

– **Bolivian eta Perun.** - Oin 4 urte eon nitzan Bolivian. Bi hilabeterako jun nitzan eta mendi asko ein nitxun: 4 sei milako, 3 bost mila eta zortzi-rehunekoak. Alturia baino zailtasuna da inportantiaua. Perun 28 egun eon nitzan, eta hori oso gutxi da.

– **Arazoa askotan eguraldia izaten da.** - Bai. Perun egualdixa izan zan problemia. Hala ere, ein nitxun mendi batzuk: Hurus, Ishinca Chico (5.400), Chopicalpi (6.354). Nere asma Alpamayo eitxia zan. Forma politxa dauka, eskalau eitzen da izotzian. Hori nakan buruan baina egualdixagatik azkenian ezinezkoa izan zan.

– **Zeren arabera aukeratzen duzu mendi bat?** - Dana hartzen da kontutan baina, batez ere, disfrutatzia

mendi horrekin. Bia bat aukeratzera-kuan paisajia, bertikaltasuna, bia politxa izatia... azken batian alizientia sortzen dizun zeozer izatia.

– **Haitzean ala izotzean eskalatzea nahiago?** - Bixak. Udan adibidez, Naranjo eskalatzea bizio bat da. Izotzian ere Gavarnie-n edo Izas-en eskalatzea oso ondo dao. Rokodromo-ko eskalada deportibua kenduta edo-zer dao ondo.

– **Mendi trabesien artetik, zein onena?** - Trabesiak hasieran ein nitxun. Gero eskaladia ein dot batez ere. Lelengo trabesia dakat goguan: Canfranc, Valle de Izas, Sallent del Gállego eta hortik Panticosara. Tontor asko ein genitxun eta ondo pasau nabalako eta lelenegua izan zalako daukat goguan.

– **Mendi bat aukeratzekotan?** - Boliviako Illampu, 6.300ekua. Oso politxa da, glaziarra daka, pala bat eskalatzeko, arista bat... danetik. Haitzian Naranjoko edozein bia, Murcia-na, adibidez.

– **Egingo zenukeen tontor bat?** - Alpamayo. Egualdi txarragatik ezin izan naban ein eta hor geratu jatan arantza bat da.

– **Zer behar da Inñurrategitarrak bezalakoa izateko?** - Aifizua, denpora eukitzia eta ona izatia.

KIROL ALBISTE -

● Eskubaloikoak Euskadiko selekzioan

Elgoibar Kirol Elkarteko kadete mutiletako bi jokalar, Unai Arrieta eta Ander Goikoetxea, Euskadiko selekzioarako hautatu dituzte. Asteburuan, Euskadiko selekzioarekin lehen partidua jokatuko dute Bilbon. Hauxe gain, nesken taldeko Amaia Jauregi eta Leticia Astray-ri ere Euskadiko selekzioan jokatze deitu die. Izan ere, hil honen 6, 7, eta 8an Nafarroako Biana herrian selekzioarekin jokatuko dute bi neskek.

● Nicolás Jiménez, Euskadiko txapelketara

Elgoibarko Karate taldeko Nicolás Jiménezek, Gipuzkoako Karate Txapelketan hirugarren postua, hau da, brontzezko domina lortu zuen joan den domekan Usurbilen. Domina honi esker, hilaren 14an Portugaleten jokatuko den Euskadiko Txapelketan arituko da.

ESKOLARTEKO JOKOAK

EMAITZAK (Azaroak 30, 6.)

ARETO FUTBOLA

12

■ Benjamin mutilak ■

Ikas Kirol 0 - Ikas Zirt 3
Ikas Mazarro 1 - Pilar Lakasitos 0

Mendaro A1 5 - Pilar Flash 1
Mendaro A2 2 - Ikas Txut 3

■ Benjamin neskek ■

Ikas Zart 1 - Pilar Kas 1
Ikas Izurde 1 - Urasandi 0
Ikas Izar 0 - Mendaro B 1

SASKIBALOA

■ Alebin mutilak ■

Ikas Eguzki 6 - Pilar s. Germain 12

Pilar All Star 9 - Pilar Ajax Ajax
Ikas Axelkoak 46 - Herri Boomerang 0

Ikas Ilargi 10 - Mendaro D 26
Ikas Otsokoak 14 - Herri Manchester

■ Alebin neskek ■

Ikas Beder 24 - Pilar Mix 2
Ikas Trumoi 2 - Herri Women's 6

Ikas Laino 4 - Mendaro C 2

ESKUBALOA

■ Infantil mutilak ■

Ikas Urdin 14 - Ikas Pirri 19
Ipurterreak 1 - Pilar Inter 0
Ikas Txuri 10 - Pilar Boys 20
Ikas Amantis 0 - Herri Milan 1

■ Infantil neskek ■

Ikas Beltz 1 - Pilar Manchester 0

Ikas Gorri 11 - Pilar Girls 8
Gremlins 14 - Peña Insti 5

Felix Izetak irabazi du VI. Nazioarteko Xake Txapelketa

Pasa den domekan, hilak 1, eman zitzaion amaiera Elgoibarko Xake Txapelketaren VI. edizioari. Aurtengoan euskaldun batek eskuratu du txapela, Felix Izeta zestuarrak, hain zuzen. Azken partida iazko txapeldunaren aurka jokatu zuen Izetak, eta berdinketan amaitu zuten. Biek 5,5 puntu zituzten baina txapelketan erabiltzen den berdinketak hausteko sistemari esker Izetak hartu zuen aurrea.

SAILKAPENA:

- 1- Felix Izeta (EUS) 6 puntu
- 2- Daniel Cámpora (ARG) 6 puntu
- 3- Oleg Korneev (ERRU) 5,5 puntu

Harrera eskasa

Aurtengo edizioa VI.a izan bada ere, txapelketak gero eta arraskata handiagoa izan beharrean, kontrakoa gertatu dela esan daiteke. Aurrekontu eta sari



Ezkerretik hasita bigarrena da irabazlea.

garrantzitsuak (225.000 pta. irabazlearentzat) banatu arren, apenas sortu duen interesik herritarren artean. Txapelketari zegozkion partidak jokatu diren egunetan oso jende gutxi hurreratu da Kultur Etxera xakelariaren gora-behera ikusteko. Txapelketak izan duen harrera kaxkara udal agintariengan ere isladatu da. Izan ere, domeka iluntzean egin zen sari banaketa ekitaldian ez zen udal ordezkariarik egon.

XVIII. Herriko Xake Txapelketa

Zubi-Ondo Xake Elkarteak urriaren 26an eman zion hasiera herriko XVIII. Xake Txapelketari. Bi mailatan banatuta ari dira jokalaria



Infantiletan erronda bat falta da txapelketa amaitzeko.

parte hartzen, batean infatilik eta bestean, jubenilak eta seniorrak elkarrekin batera.

Infantiletan 8 partehartzaile aritu dira lehian eta partida bakarra geratzen da txapelketa amaitzeko, datorren zapatukoa, hilak 14. Behin-behineko sailkapena honela geratzen da:

- 1- Ivan Fernández eta Victor Bellón (5 puntu)
- 2- Zigor Díez (3,5 puntu)
- 3- Oscar Durán (3 puntu)

Jubenil eta seniorretan, txapelketaren erdia baino ez da burutu oraingoz. Atzeratu diren jokaldiak kontuan hartuta, 5 txanda falta dira amaitzeko. Sailkapena, behin-behinekoa, honela dago:

- 1- Mikel León eta David García (4,5 puntu)
- 2- Ignacio Vázquez (3 puntu)
- 3- Tomás Conde (2,5 puntu)

Azken erronda hilaren 21ean jokatu da eta sari banaketa 22an egingo da Zubi-Ondo elkartearen egoitzan.

EMAITZAK

Futbola

Usurbil 0 - Elgoibar 3 (Neskak)
 Arratia 0 - Haundi 1
 Elgoibar 7 - Hondarribia 0 (1. jub.)
 Elgoibar 0 - Euskaldunak 1 (1. erreg.)
 Eibartarrak 0 - Elgoibar 10 (2. jub.)
 Elgoibar 4 - Urola 3 (Kadeteak)
 Soraluze 2 - Pedrusko 0 (2. erreg.)
 S.T. Lizeoa 6 - Elgoibar 1 (Infantilak)

Saskibaloia

Elgoibar 66 - Astigarraga 43

Eskubaloia

Pneumax Elg. 20 - Egia 14 (Kad. mut.)
 Zarautz 19 - Unceta Elg. 10 (Kad. nes.)
 Pagoaga Elg. 21 - Urnieta 9 (Jub. nes.)

Futbitoia

Kosakos 0 - PSK 2
 Maser 3 - S. Braga 3
 B. Herminios 7 - Sorpresa 0
 Sanroketa 12 - Menisco 0

Areto futbola

Cactus 1 - Elgoibar F.S. 2 (Autonomikoa)

Pilota Gipuzkoako Txapelketa

Leon/Balzola 22 (Elgoibar) - Irureta/Etxabe (Azpeitia) 11

AGENDA

Futbola, Mintxetan

Ostirala, 6
 12,00 Urki A - Eibartarrak (2. jub.)
 13,45 Urki B - Antzuola (2. jubenilak)
 15,30 Eibartarrak - Bizkerre (Neskak)
 17,15 Elgoibar - Urretxu (Neskak)
 19,00 Urki - Bergara (2. erreg.)
 Larunbata, 7
 17,00 Haundi - Santurtzi
 18,45 Eibartarrak - Zarautz (2. erreg.)
 Igandea, 8
 10,00 Eibar - Aloñamendi (Kad.)
 11,45 Elgoibar - Zarautz (Infantilak)
 13,30 Gazteak - Urki B (2. jubenilak)
 15,15 Elgoibar - Aretxabaleta (2. jub.)
 17,00 Pedrusko - Mutriku (2. erreg.)
 18,45 Eibar - Anaitasuna (1. erreg.)

Eskubaloia, Kiroldegian

Larunbata, 7
 17,30 Hyundai Elg. - Jauja (Seniorrak)
 Igandea, 8
 12,15 Hyundai Elg. - Omaiztegi (Seniorrak)

Futbitoia, Kiroldegian

6, ostirala (Arbitraia: Ikus Optika)
 9,00 Aurten Bai - Karkis
 10,00 Bokordo&Bofino - Kunta Kinte
 11,00 Berrogei Duro - Uda Berri
 12,00 Orbela - Aldavas
 8, igandea (Arbitraia: Karkis)
 9,00 Ikus Optika - S. Braga
 10,00 Sanroketa - PSK
 11,00 Maser - Menisco
 12,00 Kosakos - Sorpresa

Zatoz IKUS Optikarekin Mugerza Krosa ikustera!

ikus
OPTIKA
OPTIKO-OPTOMETRISTA



Erantzun behean datozen galderak eta ekarri **IKUS optikara** (San Bartolome, 10). Astero, Mugerza Kroserako **bi sarrera** zozketatuko ditugu ondo erantzuten duzuenon artean. Azpimarratu ondo dagoen erantzuna.

Korrikalari hauetatik nor izan da irabazle Junior eta Senior kategorietan?

- 1- Jordi García
- 2- Martín Fiz
- 3- Josetxo Goikoerrotaberry

Zein urtetan egin zen lehendabiziko aldiz Juan Mugerza Nazioarteko Krosa Mintxetan?

- 1- 1992an
- 2- 1963an
- 3- 1993an

Zein izan da krosa suspenditzeko arrazoi bakarra?

- 1- Elurra
- 2- Uholdeak
- 3- San Pedroko lantegiaren eraisketa

IZEN-ABIZENAK

.....

HELBIDEA


.....

TELEFONOA



Ba al dakizu...

- ✓ Nazioarteko lehendabiziko edizioetan korrikalariak ez zutela dirurik jasotzen eta egindako postuaren arabera opariak aukeratzen zituztela (telebistak, hozkailuak, erlojuak, eskopetak, etab.)
- ✓ Krosaren historian zehar 30 herrialdetik gorako korrikalariak parte hartu izan dutela?
- ✓ Martín Fiz-ek 1982an Junior mailan irabazi zuela? Eta harrekeroztik 12 ediziotan parte hartu duela?



Urtarrilak 5, igandea
Juan Mugerza Memoriala
**NAZIOARTEKO KROS
TXAPELKETA**

LEHIAKETA

JASONE OSORO

“Irakurtzia gustauko jatana idazten dot”

Ez da bere lan bat saritzen duten lehen aldia. Lasarte-Oriako X. Literatur Lehiaketan, ipuinen atalean, lehen saria irabazi du kazetaritzan lizentziatua eta BARRENeke lankide dugun honek. Neurri ezberdineko txapelak jantzitakoa da; Eibarren lehen, bigarren eta hirugarren sariak jaso izan ditu beste horrenbeste ipuinengatik eta iaz, Errenderiko Ipuin Lehiaketan, guztien artean nabarmendu zen Jasoneren idazlana.

– **Eskolako ipuin apaletatik gaur arte...**

- Ipuinak idazteko planteamendua aldatzen jun naiz dudarik gabe. Institutuan, adibidez, gogoratzen naiz irakasle batek esan ziala banaukala berezko zer bat eta merezi zabala lantziak. Poliki-poliki planteamendua aldatzen zuaz, serixuo idazten hasten zera eta lehiaketetara aurkezten.

– **Disziplinarik gabe,...**

- Diziplina behar da. Pasatzen dana da batzuetan alpertu eitzen zerala, igual batzuetan zaila itxen dalako ordenadore aurrian jarri eta sortzia. Lehiaketa baterako idatzi biharrak obligaziua sortzen dizu. Idaztia beste edozer bezela da, egunero ein bihar dan zeozer, bestela estankau eitzen zera. Ideia mordo bat dauzkat apuntau eta idazteko boladak sartzen jatazenian hor hasten naiz jo eta fuego, amaitxu arte. Bihar bat sortzen da.

– **Konpentsazio ekonomikoa ere badu lehiaketa batek.**

- Bai, baina batez ere epaimahaia osatzen daben puntako euskal idazliek zure lana errekonozitza ere oso inportantia da.

– **Zure ipuinetako protagonistak, asko behintzat, emakumeak dira. Eta maitasuna eta sexua ia beti agertzen dira.**

- Emakumiak izatiana ez da gauza konsziente bat baina egia da gehixenak emakumiak diala. Maitasuna ere askotan

agertzen da nere lanian, baina ez da maitasun “rosa” bat. Sexua sartzian arrazoia, nere ipuineri puntu pikantia eman nahi izatia izan laike, ez dakitx, hola urtetzen jata. Egixa esan, irakurtzia gustauko jatana idazten dot normalian.

– **Zergatik ipuina beti?**

- Hasieran, laburra dalako edo, ipuinakin hasten zera. Hala ere, ez dot kontsideratzen horregatik errezaia danik. Ipuinak espazio labur batian irakurlia harritsu eta asetu bihar dau. Beste jenero guztiek bezela ipuinak bere lekua daka. Ipuinekin hasi nitzan eta hola jarraitxu dot, asko gustatzen jata gainera. Halere, nobelan ere sartzeko asmuu badakat.

– **Idazlea eta kazetaria. Etorkizunean zein esparrutan kokatuko zenuke zure burua?**

- Idaztiakin lotutako zeozertan ikusten dot nere burua. Gustau eitzen jata idaztia, disfrutau eitzen dot. Nere bizitzako parte bat da eta dudarik gabe, lantzen jarraituko dotena.

– **Mesanotxean duzun liburua?**


- Bukovskiren ipuin bilduma bat

– **Zugan eragina izan duen estilo edo idazle bat?**

- Batek ere ez eta denak

– **Bi aldiz irakurri duzun liburua?**

- Asko. Azkena Patxi Ezkiagaren “Nere haragi bereko”



Aurpegi horren atzean

Oso gutxi ezagutzen dut nik Jasone Osoro, eta beraz, ezin esan nezake gauza handirik Elgoibarko neska gazte horrez, BARREN aldizkarian idazten duen kazetariak. Irakurri ditut bere ipuinak, ordea, eta hortaz, zeozer esango dut Jasone Osoro idazleaz.

Istoriok asmatzen ditu Jasonek, ipuinak. Hau esanda, hala ere, ez dezala inork pentsa Urruzunorenak bezalako pasadizoak kontatzen dituenik, edo Txanogorritxurena bezalako ume-konturik. Gizon-emakumeen arteko gora-beherak azaltzen dira, batez ere, bere istorioetan: maitasunaren legeak, sedukzioaren jolasak, komunikazioaren nahi eta ezinak. Dena idazkera arin, estilo bizi eta malizia punttu batekin.

Jasone idazlearenak irakurrita, Jasone pertsona ezagutzeko gogoia piztu zitzaidan niri. Zuek ere, haren ipuinak ikusita, norbait desberdina deskubrituko duzue zeuen bizilagunaren aurpegi txintxo horren atzean.

**Xabier Mendiguren Elizegi
Idazlea**

Hitzegin ingelesez gaurtik aurrera. Orain egin dezakezu!

Multimethod®-ekin: pedagogia, teknologia eta giza-baliabiderik onenen konbinaketarekin, bakarra mundu osoan.

Multimethod®-en abantailak:

1. Ordu-tegi librea

Ikasleak klase eguna eta ordu-tegia aukera ditzake.

2. Klaseak galdu gabe

Denboraldi batean ikasleak huts egiten badu ere, ez du klasearik galtzen. Ikasgai guztiak zikloka errepikatzen baitira.

3. Ordu-mugarik gabe

Ikasturtean zehar ikaslea nahi beste klasetara

joan daiteke. Prezio gehigarrik gabe.

4. Giro berezia eta atsegina

Wall Street ikastegiaren ezaugarri nagusiak: instalazio modernoak, irakasle onak eta giro atsegina.

5. Arrakasta bermatzen dugu

Ez baduzu ingeleza ikasten dirua itzuliko dizugu. Wall Street Institutetek emaitzak idatziz bermatzen ditu.

*Deskontu bereziak
beherengo
50 matrrikultuentzat*



WALL STREET INSTITUTE
SCHOOL OF ENGLISH

Ingelesa Wall Street Institute-n ikasten da

Dohaineko deia: **902 399 399**

Julian Etxeberria 20 - EIBAR

Beste zentru batzuk Euskal Herrian: Bilbo, Gasteiz, Donostia eta Barakaldo.

Anboto



INBERTSIOAK ETA ZERBITZUAK AHOLKULARI INMOBILIARIOAK

Iturriotz 11 - Tel. (943) 79 20 48 - ARRASATE -
MONDRAGON

Etxebizitzak Mendaron!



**KILIMON KOOPERATIBA: Laster
eraikitzeko!!**

12 etxebizitza, garajeak eta lokal komertzialak
(DENA KANPO ALDERA)



**HORMAETXE KOOPERATIBA: osoa
eta entregatua**




**TXIRRISTAKA KOOPERATIBA: osoa
eta eraikitzen**

18 etxebizitza, garajeak eta lokal
Gutxi gora-beherako prezioa:

KILIMON

TXIRRISTAKA

HORMAETXE



Eliana Ballesteros

IKASLEA - 17 URTE

20 HOGEIKOA

1.- Merezi al du bizitzeak? Eta Elgoibarren bizitzeak? - Bai, zantzarik gabe. Ni nahiko pesimista naiz, baina uste dot momentu txarrak egon arren askoz gehixo diala onak. Elgoibarren? Baietz esan biharko dot, hemen jaixo naiz eta.

2.- Eutanasia praktikatuko al zenuke familiako batengan? - Erabaki zaila da baina uste dot berak eskatuko balu, errespetau ingo nabala.

3.- Hil eta gero? - Fededuna naiz eta uste dot zeozer egongo dala.

4.- Lehenengo ni eta gero besteak. - Zoritxarrez, gaur egungo gizartiak horretara bultzatzen zaitxu. Konturatzen naiz batzuetan eskolan nota jasotzerakuan dezima batzuen bila juten zerala zure onduan beste batek suspenditu in dabala konturatu gabe. Solidaritate gutxi dao.

5.- Nori kontatzen dizkiozu arazoak? - Gurasoei. Alaba bakarra naiz eta betidanik euki dot eurekin konfiantza asko.

6.- Zein da zure bizitzako anbizioa? Eta bizioa? - Anbizioa, unibersidadera jun eta karrera bat ikastia, lan on bat topatzia eta ondo ordainduta badago hobe... Eta bizioa... bonboiak!

7.- Sinisten al duzu politikan? Ematen al duzu botorik? - Ez gehixegi, inork ez dia konfidantza gehixegi ematen. Ondiokan ez da-

kat botatzeko adinik baina uste dot zeozer aldatu nahi badou, botua eman bihar dala.

8.- Noiz joan zinen azkenekoz manifestaldi batera? - Oin dala gutxi institutuan egon zan bat presoak euskal herriratzearen alde baina azkenian ezin izan nitzan jun.

9.- Euskalduna naiz eta harro nago? - Bai, baina gehixegi azpimarratu gabe.

10.- Zerk galarazten dizu loa? - Esate baterako lehengo egunian HIE-Saren Nazioarteko eguna ospatu zan eta aholkuak ikustian buelta asko ematen diot buruari, konturatzen nazelako askotan arrazoirik gabe kejazten gerala.

11.- Gaztetxea behar al da Elgoibarren? Nolakoa?

- Bai, dudarripe. Gaz-

tiok elkartzeko toki bat bihar dogu, gauzak antolatzeko, toki garbi bat, kondizio onetan...

12.- Gurasoek asko sufrizten al dute zurekin? - Uste dot baietz ze oso nerbiosa naiz, oso responsablia eta danen gauzak eta arazuak ere neriak eitzen ditzut. Ardurau eitzen dia.

13.- Zer da gurasoengandik gehien gustatzen zaizuna? Eta gutxien? - Gehixen guraso onak diala, entzuten dakitela eta edozein egoeratan apoiatzen nautela. Eta gutxien... jenioa, baina ni berdina naiz, beraz...

14.- Laguntzen al duzu etxeko lanetan? - Bai baina nere etxian aitxa da gehixen itxen dabana!

15.- Alkoholik gabeko jairik? - Gaur egun oso zaila da holako zeozer imajinatzia baina posible izan laike.

16.- Irakurri duzun azken liburua? - Euskaraz *Obabakoak* eta erderaz, *Mujer de rojo sobre fondo gris*.

17.- Sexua maitasunik gabe ala maitasuna sexurik gabe? - Maitasuna sexuakin.

18.- Birjinitatea: sakrifizioa ala bertutea? - Ez da lehen zana, baina oindiok ere mutilek nahiago izaten dituzte neska birjinak.

19 - Homosexual batek maite zaituela esango balizu? - Naturaltasun osoz hartuko nabala uste dot. Nahiko irekixa kontsideratzen naiz.

20.- Sinisten al duzu betirako maitasunean? - Nere gurasoen kasua dakat eta eurak ondiok maitxe dia. Bai, zergatik ez?



Mandiola S.L. Egurrak

Domingo Arrizabalaga

SALEROSKETA
BASOEN MOZKETA

Juan Mugerza 3. ☎ 74 12 56 - (mugikor.) 908 67 68 64



BATZO-
JATETXEA
ETA
TABERNA

P. Muguruza 8. ☎ 74 08 21

PREMIAZKO
TELEFONOAK

OSASUNA

Anbulategia:
Larrialdiak 461111
Txanda hartzeko 743354
Planning-a 742950
Alkoholiko Anonimoak 740385
D.Y.A (anbulantzia) . . 464622
Gurutze Gorria . . . 743864
Mendaroko Ospitalea. 756264
Odol Emailak . . . 743936

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak. 740442
PESA (Eibar) 102131
Taxi geltokia 740898

UDALA

Euskara Zerbitzua 744366
Udal Kirol Patronatua
744415
Kultura Zerbitzua . 742158
Mendaroko Udala. 756100
Ongizate zerbitzua 741008
Udaletxea 741050
Udaltzaingoa 741394

BESTELAKOAK

Caritas 740142
Elgoibarko Izarra . 741626
Kiroldegia 74 4415
Kontsumo Bulegoa 743088
Liburutegia 743525
Musika Eskola . . . 742145
Mintxeta 744315
Parrokia 740842
Postetxea 741547

HIRUGARREN ADINA

San Lazaro Egoitza 740296
Zaharren Biltokia . 740526

IKASTETXEAK

Haur Eskola 74 21 41
Herri Eskola 74 08 79
I.M.H. 74 41 32
Instituitua 74 02 67
Ikastola 74 44 41
L.H.I. 74 44 80
Pilar Ikastetxea . . 74 13 31

KOMUNIKABIDEAK

BARREN 74 41 12
El Diario Vasco . 74 40 73
El Correo Español 74 10 82
Egin 10 84 21

5
osteguna

**19,00 HITZALDIA ETA
DIAPOSITIBA SAIOA**
Gaia: Artzantza
tradizionala
Hizlaria: Josetxo Zufiara
etnografoa
Kultur Etxean

6
ostirala

22,15 ZINEA
"Phenomenon"

7
larunbata

19,30-22,15 ZINEA
"Phenomenon"

**20,30 ERROSARIOKO
AMABIRJINARI
OMENALDIA**
Errosario kalean

8
igandea

**16,30-19,30-22,15
ZINEA**
"Phenomenon"

9
astelehena

**21,30 TALDE ANTI-
MILITARISTAREN
BILERA**
P. Muguruzako eskola
zaharrean

22,15 ZINEA
"Phenomenon"

11
asteazkena

15,00 BIDEO-FORUMA
Filmea: "Los puentes de
Madison"
Hizlaria: Rosa Lende
sexologoa
Kultur Etxean
Antolatzailea: Haizea
Emakume Taldea

12
osteguna

19,00 650.
**URTEURRENEKO
HITZALDIA**
Gaia: Ohitura eta
usadioak
Hizlaria: Antxon Agirre
ikerlaria (gaztelaniaz)
Kultur Etxean

22,15 ZINE KLUBA
"La ceremonia"
Antolatzailea: Ongarri
Zine Kluba

13
ostirala

15,00 BIDEO-FORUMA
Filmea: Las locas
peripecias de un señor
mama"
Hizlaria: Cristina García
Gaia: Enplegua
Kultur Etxean
Antolatzailea: Haizea
Emakume Taldea

**18,00 ODOL
ATERALDIA**
P.M. urruzuno 8an

22,15 ZINEA
"Intimo y personal"

Z
N




Phenomenon

Itxuraz normala den gizonezko baten bitzta erabat aldatzen da 37 urte betetzen dituenean. Egun horretan argi izpi handi batek kolpatu eta konorterik gabe uzten du. Egun batetik bestera, asezineko jakinminekoa eta inteligentzia handikoa bihurtzen da. Zientifiko eta militarrekin arazoak sortzen dira bere inteligentzia dela-eta. Herritarrek bizkarra emango diote, ulertu ezin duten fenomeno horren beldur baitira.

Zuzendaria: Jon Turteltaub
Antzeleak: John Travolta, Kyra Sedgwick, Forest Whitaker.

● Antimilien bilera

Elgoibarko talde Antimilitaristak bilera egingo du datorren astelehenean, hilak 9, gaueko 9,30etatik aurrera. Pedro Muguruza-ko eskola zaharretan bilduko dira eta besteak beste, Gipuzkoako Kaktizat Koordinakundeko azken bilera esandakoari buruzko informazioa emango da (kode penal berria eta inhabilitazioa, objetoreak eta multak, ejerzito profesionala 2001ean etab.). Bilerak hamabostero izango dira.

● José Roncoren argazki erakusketa

José Ronco argazkilaria eibartarraren erakusketa irekita dago dagoeneko. Erakusketaz aparte, Ongarri Argazki Taldeak egilearen 3 argazki orijinal dituen karpeta salgai jarriko du erakusgelan bertan, 10.000 pta.ren truke, benetako balioaren %15a. 30 argazkitan, zuri-beltzekoak denak, natura protagonista bihurtzen da paisaia eta bejetazioaren deitale txikien bidez. Formen edertasuna agerian geratzen da Roncoren lanetan: arbo-



la handiak, ostiak elurretan, isladak hondarretan, haitzak, uretatik azaltzen diren sustriak... Erakusketa abenduaren 27ra arte egongo da zabalik, arratsaldeko 6etatik 9ak arte ategun eta zapatuetan. Antolatzailea Ongarri Argazki Taldea da eta Al- dundia eta Udala laguntzaileak.

● Ohitura eta usadioei buruzko hitzaldia

Elgoibarko 650. urteurreneko ekitaldien barruan, Kultura Sailak "Ohiura eta usadioak" gaiaren inguruko hitzaldia antolatu du. Hilaren 12an, osteguna, izango da saioa Kultur Etxean, iluntzeko 7etatik aurrera. Antxon Agirre ikerlaria izango da hizlaria. Hitzaldi hau gaztelerez emango du etonografo gipuzkoarrak.



azkue

● Errosarioko Amabirjinaren irudiari ongi- etorria

Errosario kaleko auzotarrek Amabirjinaren irudi berrituari omenaldia egingo diote bihar, eta e-tzi, hilak 6 eta 7. Hilaren 6an, ostirala, irudiaren erakusketa egingo da Astigarraga kirol dendako eskaparatean. Larunbatean, hilak 7, Parrokiako Errosarioko aldarean kokatuko da irudia, nahi duenak loreak eraman diezazkion. 7etako meza- ren ostean, irudia bedeinkatu eta Errosario kaleko kuxtara eramango dute prozesioan. Dantzarien saioa, otzoitza eta agurra abestuko zaizkio bertan. Batzorde antolatzaileak dei egiten die kaletar zein herritarrei ekitaldietan parte har dezaten.

● Haizeak antolatutako bideo-forumak

Haizeak bi pelikula emango ditu bideo-forumean. "Los puentes de Madison", hilaren 11n, senar-emazteen egunero- kotasuna eta emakumea- ren bakardadeari buruz hitz egiteko Rosa Lende sexologoa izango delarik. Azken bideo-foruma, hilaren 13koa, enpleguaren inguruan eratu dute. Cristina García enpleguan aditua denak hitz egingo du eta pelikula "Las locas peripécias de un señor mamá". Bi saioak Kultur Ertxean izango dira arratsaldeko 3etan.

● Jaiotzen X. txapelketa

Parrokiako Kristau Ikasbideak haurrek egin- dako Jaiotzen X. lehiaketa antolatu du. Lanak edo- zein materialekin egin daitezke: buztina, plastili- na... baina ez da marrazki edo kartulinarik onartu- ko. Hilaren 15an, goizeko 11etan eliz arkupeetara eraman beharko dira jaiotzak. Bezperan, be- rriz, izena emateko Ubiarteko lokalera zuzen- du goizez.

ONGARRI zine kluba



Zuzendaria: C. Chabrol (1995)
Antzezleak: S. Bonnaire, I. Huppert, J. Bisset

La ceremonia

Sophie, herrialde bateko familia burges batek kontratatzen du neskame moduan. Familia honen bizimodu errutinario eta hutsalean erabat sartuta dagoelarik, lagun bat aurkituko du: herriko posta bulegoko emakumea. Adiskidetasun hau Sophie-k lan egiten duen familiaren aurka irauliko da, biolentziaz beteriko eztanda baten antzeko zerbait gertatuko delarik.

T X A N - D A K

FARMAZIAK

	Egunez	Gauetz
5	Bidasolo	Zabaleta
6	Etxeberria	Escala
7	Etxeberria	Anduaga
8	Etxeberria	Anduaga
9	Ormazabal	Escala
10	Ormazabal	Escala
11	Ormazabal	Escala
12	Ormazabal	Escala
13	Yudego	Zabaleta

OKINDEGIA

Salerosketak

- ♦ TRONPETA BAT erosiko nuke. **☎ 74 28 53**
- ♦ RENAULT 9 GTL kotxea saltzen dut. Oso egoera onean dago. **☎ 74 36 98**
- ♦ 5 hilabeteko SETER INGELES arrazako txakurkume eme bat saltzen dut. **☎ 75 61 47**
- ♦ Golf GTI SS 1260 AH bat saltzen dut. Egoera oso onean dago. **☎ 75 51 90**
- ♦ SKIAK ETA BOTAK salgai. Dynastar 1,85ko skiak, Tyrolia loturekin. Botak (Nordica) 42-43. Egoera onean. **☎ 74 18 55** (Gauetz)
- ♦ Ford Fiesta batentzako EKIPAIAKOKO PARRILA saltzen dut prezio onean. Bai eta Ford Scort baterako gurpileko tapak ere. **☎ 74 27 93**
- ♦ BUTANOZKO SUKALDE ia berria saltzen dut estrenatu gabeko labe batekin. **☎ 74 10 09**
- ♦ MOTOR BAT erosiko nuke. **☎ 74 17 87**
- ♦ Bigarren eskuko BIBOLIN BAT saltzen dut. Oso egoera onean. **☎ 74 23 13**
- ♦ Erreperiderako BIZIKLETA salgai. Merke eta egoera onean. **☎ 74 11 29**
- ♦ Bigarren eskuko lanparadun BI SOLARIUM-ohel salgai. Prezio eta egoera onean. **☎ 74 19 23 / 74 21 82**
- ♦ 103 cm-ko BEROGAILU elektriko bat saltzen da. **☎ 74 24 57**
- ♦ EHIZARAKO ESKOPETA salgai. **☎ 74 17 20**
- ♦ FORD SCORT R-S TURBO autoa saltzen dut. SS-AG. Oso egoera onean. **☎ 74 05 14/74 15 16**

Partikularrak

- ♦ Matematika, kontabilitatea, praktika administratiboak, kosteen kontabilitatea eta abarri buruzko klase partikularrak ematen ditut. Maila guztiak eta talde mugatuak. Esperientzia dut. **☎ 74 21 65** Javi
- ♦ Matematika finantzieroak ematen dituen norbait behar dugu. **☎ 74 13 18**
- ♦ Partikularrak ematen ditut. Lehen Hezkuntza, DBH, Lehen zikloa eta ingelesa. **☎ 74 28 02**

Lana

- ♦ Haurrak zaindu eta etxeko lanak egingo nituzke. **☎ 74 23 90**
- ♦ Pertsona nagusiak zaintzeko prest nago. **☎ 74 15 09 / 74 30 30**
- ♦ Neska euskalduna eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta umeak zaintzeko. Esperientzia eta informea daukat. **☎ 74 23 30** (Eva)
- ♦ Neska edo emakume euskalduna behar da umeak eskolara eraman eta arratsaldez paseatzeko. Nahia-gonekue Plaza ingurutik Sigamako zubira bitartean biziko balitz. **☎ 74 29 27**
- ♦ Sukaldari bat behar dut Soraluzeko jatetxe baterako. **☎ 75 10 01** (Javi)
- ♦ Neska bat behar dugu etxeko lanak egiteko arratsaldez. **☎ 74 43 47** Sara
- ♦ Arratsaldeko 2,30etatik gaueko 9etara lan egiteko prest nago haurrak zaindu eta etxeko garbiketarako. **☎ 74 30 90**
- ♦ Etxeko lanak egin edo umeak zaintzeko prest nago goizez. **☎ 74 43 16** Marimar
- ♦ Etxeko lanak egin edo haurrak zainduko nituzke. Esperientzia daukat. **☎ 74 43 16** Arantxa
- ♦ Publizitate eta promozio gaien enpresak komisiokomertzialak behar ditu (egun osoz edo erdiz). **☎ 70 12 33**
- ♦ Emakume batek pertsona nagusiak zainduko lituzke. **☎ 74 30 30**
- ♦ Emakume batek pertsona nagusiak zainduko lituzke. **☎ 74 15 09**
- ♦ Neska euskalduna umeak zaindu edo etxeak garbitzeko prest dago. **☎ 74 04 58**
- ♦ Emakume bat etxeko lanak egin edo haurrak zaintzeko prest dago. **☎ 74 36 05**

Garajeak

- ♦ Arregitorren garaje itxi bat saltzen da. **☎ 74 12 53**
- ♦ Garajea salgai Karakolaren alboan, pista beltzean. Merke. **☎ 74 27 73**
- ♦ Auto txiki batentzako marradun garajea alokatzen dut. Batzoki azpian. **☎ 74 01 13**
- ♦ Garaje itxi bat salgai Arregitorren. **☎ 74 12 53** (Pilar)

Etxebizitzak

- ♦ Etxe bat saltzen da Soraluzen. **☎ 75 11 44** (Justo)
- ♦ Elgoibarren edo Eibarren pisua nahi dut alokatzeko. Maria Oliva **☎ 74 16 30** (lanorduetan)
- ♦ Altzolan egoera onean dagoen buhardilla bat salgai. Prezio ona. **☎ 74 37 41**
- ♦ Etxea salgai San Roken, Arregitorre 12. Erabili gabe. 3 logela, 2 bainu, jangela, sukaldia, ganbara eta garajea. **☎ 75 51 77** Tere
- ♦ Pisua salgai Erretxindi kalean. 4 gela, sukaldia, egongela, komuna, ganbara eta gas natural berogailua ditu. **☎ 74 44 66** Arantxa
- ♦ Pisu bat behar dut alokatzeko Elgoibarren lehenbailehen. **☎ 909 22 36 27** Leire
- ♦ Pisua salgai Bernardo Ezenarro 5ean. Berogailua, 3 logela, jangela, sukaldia, komun bat eta 2 ganbara. **☎ 74 15 90**
- ♦ Deuston pisua betetzeko neska behar da. **☎ 74 33 38** Vanesa
- ♦ KONPARTITZEKO etxe bila nabil. **☎ 74 09 44**

Bestelakoak

- ♦ Eskusoinuak konpontzen ditut, marka eta modelu guztiak. **☎ 47 00 01** (Setatik 7etara, ostegunetan izan ezik)
- ♦ Elgoibarko Odol Emaileen Elkarteak 18 urtetik gorako guztiei dei egin nahi die odola ematera anima daitezten, bai eta bazkide izatera ere. **☎ 74 36 39 / 74 11 90**
- ♦ Haizea emakume taldeak idazteko makina eta kalefakzio bat behar ditu. **☎ 74 32 06**
- ♦ Etxebizitza jatzeko denetik eta 1,35 m. ko koltxoia eta ohea (ahal bada mesilekin) behar ditu **CARITASEk**. **☎ 74 10 09 / 74 12 57**

Agurrak

- ♦ Zorionak **Naia Unzueta**ri abenduaren 2an 11 urte beteko dituelako, 6. mailako lagunenez partez.
- ♦ **Endika Astigarragari** zorionak hilaren 7an 8 urte betetzen dituelako, bere lagun Asierren partez.
- ♦ Zorionak **Endika Astigarragari** larunbatean, hilak 7, 8 urte beteko dituelako. Maialen eta Mireiaren partez musu handi banarekin.
- ♦ Zorionak **Begori** hilaren 4an bere urtebetetzea izan zelako. "Kilometroak 96 Salmenta Batzordearen" partez.
- ♦ **Amets Izagirre**ri zorionak Deba Beheko Eskolarteko Maskota Lehiaketan 2. saria ateratu duelako. Ikastolako 6. mailako adiskideen partez.
- ♦ Gure **birramona Maria** zoriondu nahi dugu hilaren 3an 80 urte bete zituelako eta orain arte bezain guapa jarrai dezala esateko. Birramona Valerio ere zoriondu nahi dugu hilaren 9an 85 urte beteko dituelako. Ondo pasa eta musu handi bat euren biloba Nerea eta Olatzen partez.
- ♦ **Joseba Garateri** zorionak 21 udaberri bete dituelako hil honen 3an. Bere neskalagunaren partez.
- ♦ Zorionak **Jose Antonio Garitagoitiari** bere familiaren partez eta bereziki Ainhoaren partez.
- ♦ Zorionak **Kontxiri** abenduaren 4an urteak bete zituelako familiaren partez.
- ♦ Abenduaren 4an 9 urte bete zituena **Ainhoa Usobiagari** zorionak bere lehengusu Jokinen partez.
- ♦ **Aitxita Ciprianori** abenduaren 9an urteak beteko dituelako zorionak bere biloba Jokin, Ainhoa eta Unairen partez.
- ♦ Zorionak **Iosu Garitagoitiari** hilaren 8an 8 urte beteko dituelako. Bere familiaren partez.
- ♦ Zorionak **Jon Irazabali** gaur, hilak 5, 11 urte betetzen dituelako. Ikastolako 6. mailako adiskideen eta lehengusinen partez.



CENTRONET

T I N D A T E G I A

Drain Elgoibarren

ERROSARIO KALEAN, LIZZY DENDAN

ZERBITZURIK ONENA PREZIO INTERESGARRIENETAN

- Alkandorak eta korbata 295 pta.
- Prakak, gonak eta blusak 595 pta.
- Soinekoak eta txaketak 795 pta.
- Berokiak, gabardinak eta txaketoiak . . . 1.095 pta.

ESKAINZA BEREZIA: Mantak 1.395 eta Edredoia 1.795 pta.

Bidebarrieta, 42 behea. 20600 EIBAR (Gipuzkoa) Tel. 943 20 42 63

II. Kontzezio Azoka

Mendaron

Abenduak 7, larunbata
Goizean zehar 9,00 - 14,00
Frontoi inguruan



Mendaroko txokolafeak
Nekazaritza Biologikoa
Barazkiak
Fruituak
Ogi artesañoa
Pastelak
Sagardoa
Lore lehorrak
Ardiak
Behiak
Zaldiak
Hegaztiak
Esku lanak...

ANTOLATZAILEA: Mendaroko Udala



LAGUNTZAILEA: Debemen